

UDALEKUETARAKO ARAUAK

1. KAPITULUA: Epeak.

1. Izena emateko epea foiletoan eta karteletan ezarrita dago, bertan zehazten dira bere hasiera eta amaiera datak.
2. Izena emateko epea ez da inoiz 8 egun naturaleko epea baino laburragoa izango. Lanegunetan ezarriko da epea, Berangoko Kultur Etxeak itxita baitaude asteburuetan.

Berangoeta: astelehenetik ostegunera: 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara.

Santa Ana: astelehenetik ostegunera: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Eta ostiraletan 10:00etatik 14:00etara.

3. Izena emateko epe bera izango dute erroldatuek eta erroldan ez daudenek.
4. Erroldan ez dauden umeen kasuan, legezko tutore bat erroldaturik egonez gero, erroldatutzat hartuko dira ume horiek. Horretarako, programan izena emateko epea hasi baino urtebete lehenagotik egon beharko da erroldatuta tutorea, gutxienez.
5. Izena emateko epe horren barruan, zerrenda bi ezarriko dira. Alde batetik, erroldatuen zerrenda (lehentasuna izango dutenak) eta, bestetik, erroldan ez daudenen itxaron-zerrenda.
6. Jardueran izena eman dutenen zerrendetan, inskripzio-dataren arabera egingo da hurrenkera, eta zenbaki bana adjudikatuko zaie zerrendetan daudenei, zerrenda batean edo bestean egoteagatik.
7. Izena emateko epea amaitu eta gero, Udaletxera eramango da erroldatuen zerrenda, erroldan dauden ala ez egiaztatzeko.
8. Erroldan daudela eta aurkeztutako datuak egiaztatu ondoren, berrantolatu egingo dira zerrenda biak, erroldatik ateratako informazioa kontuan izanda.

2. KAPITULUA: Onarpena.

1. Ezer baino lehen, jardueraren erabiltzaileen asebetetzea da lehenesten eta bilatzen dena.
2. Erroldatuen izen-emateek jardueran eskainitako plazak gainditzen dituztenean, zozketa publikoaren bitartez emango dira.
3. Zozketa horretan, jardueran plazarik GABE geratuko direnen zenbakiak aterako dira poltsa batetik, eta zenbakien irteera ordenaren arabera antolatuko dira, hau da, lehen zenbakiari zerrendako lehen postua egokituko zaio, eta horrela bata bestearen atzetik.
4. Erroldatuek plaza guztiak betetzen ez badituzte, erroldan ez daudenei emango zaizkie. Kasu honetan, erroldan ez daudenen inskripzio-dataren arabera emango dira, hau da, erroldatu gabeez zerrendan duten hurrenkeraren arabera.
5. Erroldatu guztiak sartuko dira zozketan, egitekotan, eta publikoa izango da beti. Aurreko urteetan jardueran parte hartu izanak ez du lehentasuna ematen; beraz, erroldatu guztiak sartuko dira zozketan baldintza beretan.
6. Zozketaren ondorioz, jardueratik kanpo geratuko diren erroldatuak itxaroteko zerrendan sartuko dira automatikoki, erroldatu gabekoen aurretik. Itxaron-zerrenda hau, bolen irteera ordenaren arabera antolatuko da, hau da, jardueratik kanpo geratuko den lehena, itxaron-

- zerrendako lehena izango da, eta horrela bata bestearen atzetik. Jarraian, erroldatu gabekoak ipiniko dira, inskripzio-dataren arabera.
7. Erroldatzeari buruz adierazten dena gezurra bada, itxaro-zerrendako azken postura pasako da eskatzailea.
 8. Onarpenaren jakinarazpena Kultur Etxe bietako iragarki tauletan agertuko denaren bitartez egingo da, jarduera bakoitzean onartu direnen zerrendak eta itxaron-zerrendak argitaratuko baitira. Informazio hau ez da telefonoz emango.
 9. Erabiltzaileen betebeharra da zerrenda horiek kontsultatzea.
 10. Salbuespen oso puntualetan, argitaratutakoan aldaketarik balego, telefonoz jakinaraziko da.
 11. Izena emateko epea itxi eta gero, parte hartzeko interesa duten guztiek inskripzioa egin dezakete, baina itxaron-zerrendara pasatzeko baldintzarekin. Azken hauek, jardueran parte hartzeko aukera izango dute, erabiltzailearen bat agertzen ez bada edo baja hartzen badu. Kasu horretan, berriro antolatuko da itxaron-zerrenda, eta erroldatuek izango dute lehentasuna sartzeko. Epez kanpo izena eman duten erroldatu hauek, zozketan plazarik lortu ez duten erroldatuen atzean ipiniko dira itxaron-zerrendan, baina erroldatu gabeen aurrean.

3. KAPITULUA: Ordainketak:

1. Aste Santuko / Udako / Gabonetako koloniak, txangoak Berangoko edozein Kultur Etxetan ordainduko dira, eskudirutan edo banku-txartela erabiliz (soilik Berangoeta kultur etxean).
2. Jardueraren kostua ordaintzeko ezarri den epea honako hau da:
 - o Ordainketa egiteko azken eguna, 2020.eko ekainaren 5a, izango da.
 - o Tarifa berezia eskatzen bada, eta udal langileek eskaeraren dokumentazioa aztertu eta gero, eskatzaileak bi eguneko epea izango du ordaintzeko, ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa telefonoz jakinarazten zaionetik hasita.
3. Tarifa berezia eskatu duten pertsonak, 2020.eko uztailaren 3a baino lehen ordainketa egin behar izango dute, bestela, ezin izango dute udalekuetan parte hartu nahiz eta behin-betiko zerrendetan egon.
4. Jarduera hasita dagoenean sartzan direnak, osorik ordaindu beharko dute kostua. Ez da proportzionalki ordainduko.
5. Jardueren prezioak Udalak ezarriko ditu.

4. KAPITULUA: Tarifa bereziak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1. Izena emateko behar bezala betetako inskripzio-orria aurkeztu beharko da Kultur Etxe bietako edozeinetan. Ume bakoitzeko inskripzio bana aurkeztuko da.
2. Gizarte Segurantzako osasun txartelaren fotokopia.
3. Horrez gain, udalaren tarifa bereziren bat eskatu nahi bada, eskaera-orri bat bete beharko da, tarifa berezia eskatuz, eta kasu bakoitzerako ezarriko den dokumentazioaren fotokopia erantsi, kartazal itxi baten barruan.
4. Dokumentazio hori aztertzeaz Udaleko langileak arduratuko dira beti, eta ez Kultur Etxekoak.
5. Tarifa berezirako eskaera eta dokumentazioa aurkezteko bide bi daude:
 - 5.1. Udaletxean bertan aurkeztea, dokumentazioa kartazal itxi batean erantsiz. Hala ere, inskripzioa Kultur Etxean zein on line egin beharko da beti epe barruan.

5.2. Berangoko Kultur Etxe bietako edozeinetan eskabide-orria betetzea eta dokumentazioaren kartazal itxia eranstea. Kultur Etxeko langileak goizero arduratuko dira Udaletxera eramateaz eta eskabidea sarrera erregistroan sartzeaz.

6. Tarifa orokorrak:

- Ume bakoitzak, 150 €

7. Emango diren tarifa bereziak honako hauek izango dira:

- Bizikidetza unitatearen urteko sarrera gordinak <24.000€, %60ko hobaria: 60€
 - Dokumentazioa: ezkontide bien NANaren fotokopia eta 2019ko ekitaldiko errenta aitortpenaren fotokopia.
- Bizikidetza unitatearen urteko sarrera gordinak $\geq 24.000\text{€}$ <33.000€, 50%eko hobaria: 75€
 - Dokumentazioa: ezkontide bien NANaren fotokopia eta 2019ko ekitaldiko errenta aitortpenaren fotokopia.
- Bizikidetza unitatearen urteko sarrera gordinak $\geq 33.000\text{€}$ $\leq 36.000\text{€}$, %30eko hobaria: 105€
 - Dokumentazioa: ezkontide bien NANaren fotokopia eta 2019ko ekitaldiko errenta aitortpenaren fotokopia.
- Familia ugariaren urteko sarrera gordinak <30.000€, %60ko hobaria: 60€
 - Dokumentazioa: Familia ugariaren karnetaren fotokopia, ezkontide bien NANaren fotokopia eta 2019ko ekitaldiko errenta aitortpenaren fotokopia.
- Familia ugariaren urteko sarrera gordinak $\geq 30.000\text{€}$ $\leq 50.000\text{€}$, %40ko hobaria: 90€
Dokumentazioa: Familia ugariaren karnetaren fotokopia, ezkontide bien NANaren fotokopia eta 2019ko ekitaldiko errenta aitortpenaren fotokopia
- Guraso biak langabezian badaude edo gizarte laguntza jasotzen badute (GGD), %90eko hobaria: 15€
 - Dokumentazioa: NANaren fotokopia, langabeziaren txartela behar bezala bete, eta egoera hauetako batean egotea egiaztatzea: gizarte-laguntzaren bat kobratzen dela eta/edo lanik gabe egotea edo lanik inoiz egin ez izana eta/edo langabeziako prestazioa agortuta izatea.
- Harrera egoeran dauden umeak familia-kidetzat joko dira:
 - Dokumentazioa: adingabekoa harrera egoeran egotearen ziurtagiriaren fotokopia.
- Erroldan ez dauden umeen kasuan, legezko tutore bat erroldaturik egonez gero, erroldatutzat hartuko dira ume horiek. Horretarako, 2019ko maiatzaren 1etik aurrera egon beharko da erroldatuta tutorea, urtebetez gutxienez.
 - Dokumentazioa: familia-kidearen egoera egiaztatzeko dokumentazioaren fotokopia.

8. Tarifa bereziak Berangoko erroldan daudenei zuzenduta daude. Prezio guztiak ume bakoitzeko ordainduko dira.

9. Tarifa bereziak ez dira bateragarriak.

5. KAPITULUA: Itzultzeak

1. Zozketatik kanpo geratuko direnei edo errodatu gabeak izateagatik jardueratik kanpo geratuko direnei soilik itzuliko zaie dirua Kultur Etxeetan. Gaixotasun edo istripu kasuetan, soilik itzuliko da %50a udalekuak hasi baino lehen eskatuz gero.
2. Beste kasu guztietan, inola ere, ez da dirua itzuliko.

6. KAPITULUA: TXANGOAK

1. Adingabekoek gurasoen baimena, behar bezala betea, behar izango dute umeek, txangoetara joateko.
2. Txangoetan eta jardueretan parte hartzeko beharrezkoa da jarduera horietan inskribatuta egotea.
3. Begiraleei eta autobusei dagokienean, kortesiazko itxarote-denbora 5 minutukoa izango da. Horren ostean, bidaiari ekingo diote, inskribatuta dagoen adingabekoren bat falta bada ere.
4. Nahiz eta txangoen egunetan eguraldi txarra egin, txangoak ez dira geldiaraziko, eta beste lekuetara joango dira irteteko eta itzultzeko ordutegiak mantenduz.
5. 5€ko fidantza kobratuko da txango bakoitzeko eta udalekuaren amaieran itzuliko da umeak txangora joaten badira. Joaten ez badira eta errekueratu nahi bada, gutxienez 3 egun lehenago abisatu beharko da. Beste kasuetan, medikuaren frogagiria aurkeztu behar izango da derrigorrez. Fidantza jasotzeko, 2020.eko irailan izango da. Behin epea amaituta, ez da dirua itzuliko.

7. KAPITULUA: ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

1. Informazio bilera:
 - 1.1. Adingabekoen gurasoak eta/edo tutoreak nahitaez joan beharko dira bilerara.
 - 1.2. Jarduera bakoitzaren ezaugarri bereziak eta jardueran sartzeko behar diren materialak eta dokumentazioa zehaztuko dira bilera horretan.
 - 1.3. 2020.eko udalekuen bilera 2020/06/10ean egingo da, arratsaldeko 19:00etan, Berangoeta Kultur Etxeko Areto Nagusian.
 - 1.4. Bilerara etortzerik ez dutenei, bileran banatutako dokumentazioa eskura dezaten eskatzen zaie.
2. Adingabekoak uzteko eta hartzeko arauak eta ordutegiak behin eta berriro betetzen ez badira, ahoz jakinaraziko zaie gurasoei edo legezko tutoreei. Birritan ohartaraziz gero, jardueratik kanpo aterako da adingabekoa. Hortik aurrera, Berangoko Udalak eta Kultur Etxeak antolatuko dituzten jardueretan parte hartzeko aukerarik gabe geratuko da.
3. Gurasoei eta legezko tutoreei dagokienean, programaren arauak eta berezitasunak ez ezagutzeak ez du salbuesten horiek bete behar izatetik.

8. KAPITULUA: GOIZTIARREN GELA

1. Goiztiarren gela egiteko, astero, gutxienez 10 ume egon behar dira talde bakoitzean
2. Ordutegia: 9:00etatik 10:00etara.
3. Umeen adinaren arabera antolatuko dira taldeak. Ludotxikikoak Berangoetan, Ludotekakoak eta Ludoklubakoak Santa Anan.
4. Goiztiarren gelaren zerbitzuak koste gehigarria du.
5. Ez Udalaren langileak, ez kultur etxeakoak, ez dira arduratuko ipinitako ordutegia baino lehen heltzen diren umeaz, edo behin udalekua amaituta, berandu heltzen direnekin.

8. KAPITULUA: TIPI - TAPA

1. Tipi – Tapa zerbitzua aurrera eramateko, astero, gutxienez 10 ume izena eman behar dute.
2. Goizeko 9:30etan Berangoeta kultur etxean geratuko da umeekin eta denok elkarrekin Santa Anara joango gara. Bidetik ez ditugu ume gehiagorik hartuko.
3. Ume batek behin eta berriro portaera txarra badauka, edo begiralearengan errespetu falta adierazten badu, ume hori zerbitzu horretatik kanporatu daiteke.